

EUSKAL UNIBERTSITATEA

Joseba Agirreazkuenaga

Eusko Ikaskuntza Kongresuetan, unibertsitate arloko gaiak betidanik izan dira gogoko. Unibertsitatea Euskal Herriko lortzea zen hasieran helburu. Gaur egunean, unibertsitate sarea sendoturik da Euskal Herrian, Unibertsitarien kopurua ere izugarri handia dugu. Badirudi, ohizko euskal gizartearen gertatzen zen antzera, euskaldunok trebatze intelektuala lortzeko bidea izango dugula, gerora atzerrira alde egiteko, lanen baten bita.

Kontextu honetan, gai zehatz bi jorratu nahi izan dugu Kongresu honetan: Ikaskuntza unibertsitarioen euskalduntzea eta Euskal Herriari buruzko jakintzen antolakundea eta zabalkundea Unibertsitate arloan.

Lehen gaiari buruz, Unibertsitate bakoitzeko ordezkariak ofizialari gonbitea luzatu diegu, Unibertsitate desberdinetako agintarien eritzia ezagutzea zelako gure helburu. Benetan erantzun ezin bobea lortu dugu. Errektorretza taldeetako ordezkarien diagnostikoa eta eritzia biltzen da bertan eta eskerrik sutuenak luzatu nahi dizkiegu, lan eta bilduma ederra burutu ahal izan delako. Une honetan, euskalduntzea zertan dagoen, zehatz mehatz ezagutu dezakegu ondoko txostenen bidez, eta Euskal Unibertsitatearen helburua, erakunde aldetik beharbada luze jo arren, izanaren arloan itzaropentsu egoteko moduan dugu. Denbora laburrean izugarriko ahaleginak eta ekintzak burutu direlako.

Bigarren arloa, Euskal Herriari buruzko jakintzak edo eusko ikaskuntzen antolakundea, zabalkundea Unibertsitateetan ezagutu nahi izan dugu. Alde batetik lizentziatura edo graduzko maila lortzeko programetan Euskal Herriari buruzko

jakintza zertan dagoen, zer irakasten da jakin nahi izan dugu. Bestalde, Euskal Herriari buruzko Diplomaturak, masterrak, graduondoko ikasleentzak ikasketa programak eta abar, unibertsitate desberdinetan antolatuak izan dira modu berezian. Zeregin berria dugu berau, geure artean behintzat. Euskal Herria, unibertsitate gai bihurtu zaigu eta eusko ikaskuntzak inoiz ere ez dute izan hain komunitate zientifiko zabala ikerketak eta argitalpenak burutzeko. Nevadako Unibertsitatean eta ipar Ameriketako Unibertsitateetan lantzen dena ere ezagutzeko parada izan dugu.

Beraz, ondoko txostenetan agertzen dena benetan jakingarria dugu. Beharbada, etorkizunean hasi berri diren jakintza hauen erakundetzeaz, gogoeta orokor eta amankomunak egin beharko ditugu, gure arteko ahaleginak lehian eta elkartasunaren bidez, uste baitut guztion onerako izango baita delako gogoeta eta koordinakundea, norberaren autonomia eta berezitasun ukatu barik. Nire ustez beharrezko da aniztasuna, ñabardura desberdineko eusko ikaskuntzen masterrak, baina geure heldutasunaren fruitu gisa, elkarren arteko lankidetzak, Unibertsitate desberdinen artekoa alegia, onuragarria izan daiteke.

Egunokaz izan dugun esperientzia amankomunaren ondorio gisa zera atera genezake: Etorkizunean, Euskal Herriko Unibertsitateen arteko "konferentzia", garai batetan euskal Diputazioak XIX eta XX mendean eratu zuten antzekoa, premiazkoa dela, Euskal Herriko esparrua eta nortasun zientifikoa sendotuz, bertako biztalez onuragarria bilatuko delako.